

AUZO ELKARTEENTZAKO 2025. URTERAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA.

OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Artikulua. Helburua

Oinarri hauek auzo elkarteei dirulaguntzak eta laguntza publikoak norgehiagoka-araubidearen bidez emateko prozedura orokorra arautzen dute, 2025. ekitaldirako; horren kudeaketa Hernaniko Udalaren Kultura sailari dagokio.

Oinarri hauek Udalak indarrean duen dirulaguntzak emateko araudiaren 7. artikuluan xedatutakoa garatzeko ematen dira.

Laguntza hauen helburua da auzo elkarten funtzionamendua erraztea eta auzoa hobetzeko egiten diren proiektuak nahiz jarduerak bultzatzea, hala nola, jaiak eta kultur ekintzak antolatzea.

Laguntza hauek bi helburu dituzte:

- 1- Auzo elkarten funtzionamendua laguntzea
- 2- Auzoetako jaiak diruz laguntzea.
- 3- Auzo elkarteek antolaturiko kultur jarduerak diruz laguntzea.
- 4- Kultur Bira antolatzea

2. Artikulua. Aurrekontua eta programak

Deialdi honetan dirulaguntzetarako aurreikusi den kopurua 151.000 euro izango da.

Kopuru hau horrela banatuko da:

1.- Aurkeztutako auzo bakoitzak 1.200 euro jasoko ditu funtzionamendu gastuetarako. Diru kopuru hau jasotzeko, ezinbestekoa da eskaera egitea.

2.- 3. artikuluan zehazten den moduan, alokairurako laguntza, gehienez 17.500 euro banatuko dira.

3.- 4. artikuluan zehaztu bezala, auzoetako kultur birarako gehienez 18.000 euro banatuko dira parte hartu nahi duten auzo elkarten artean.

4.- Behin kopuru horiek banatuta, partidatik soberan geratzen den dirua modu honetan banatuko da:

- %70, auzoetako jaiak diruz laguntzeko. Auzo elkarte guztiek ehuneko bera jasoko dute.
- %30, auzoetako kultur jarduerak diruz laguntzeko. Auzo elkarte guztiek ehuneko bera jasoko dute.

* Salbuespenak salbuespen, portzentaje horiek aldatu ahal izango dira egoeraren edo eskaeraren arabera.

Hori guztia Hernaniko Udalaren 2025eko aurrekontuko honako partida honen kontura egingo da: 1.910.481.02.334.10 2025 (4564) "Dirulaguntzak norgehiagoka kultura. Auzo elkarteak".

3. Artikulua. Lokala alokatzeko partida

Beren jarduerarako lokalik ez duten auzo elkarten kasuan, Udalak lokal bat alokatzeko laguntza emango die, bai eta lokal horretako hornidura gastuak (elektrizitatea, gasa, ura...) ordaintzeko ere.

2025. urtean, dirulaguntza honetarako guztizko kopurua gehienez 17.500 euro izango da (zerga guztiak barne).

Lokala alokatu aurretik, Kultura sailari jakinaraziko zaio lokalaren kokapena, tamaina eta hilabeteko alokairu prezioa. Herritarren batzordeari dagokio proposamena onartzea edo ezestea.

Auzo elkarteak alokairuaren dirua jasotzeko eskaera-orrian dagokion atala bete beharko du, eta justifikazioa egiteko orduan, urteko faktura guztiak aurkeztu beharko ditu.

Auzo elkarteari dagokio lokala txukun eta baldintza egokietan mantentzea.

Beste lokal bat libre geratu eta Udalak auzo elkarteari eskainiz gero, alokairua bertan behera geratuko da eta Udalak proposatutako lokala erabili beharko du auzo elkarteak, betiere auzo elkartearen jarduerarako beharrak betetzen baditu.

4. Artikulua. Kultur Bira

Kultura sustatu eta kultur jarduerak auzoetara deszentralizatzeko helburuarekin, Udalak gehienez 18.000 euro bideratuko ditu auzoetan kultur jarduerak antolatzen.

Kultur Bira izeneko egitasmo honetan, auzo elkarteek beren borondatez parte hartuko dute, eta emanaldi guztiekin zirkuitu bat osatuko da, kultur eskaintza auzoetara zabalduz.

Aurkeztutako jardueren kostuak kopuru hori gainditzen badu, auzo elkartearen artean zozketa egingo da eta kanpo geratzen diren auzo elkarteek hurrengo urtean parte hartzeko lehentasuna izango dute.

Aldiz, jardueren aurrekontua kopuru hori baino baxuagoa bada, soberan geratzen den dirua jaiak eta kultur jarduerak antolatzeko kopuruari erantsiko zaio eta auzo elkarte guztien artean banatuko da.

5. Artikulua. Onuradunak

Dirulaguntza horiek eskatzeko aukera izango dute legez osatu eta Auzo Elkartearen Udala Erregistroan inskribatuta dauden elkarteek; horrez gain, beren egoitza eta jarduera-esparrua Hernanin izan beharko dute.

Gainera, elkarteak gutxienez hamar kidez osaturik daudela ziurtatu beharko dute.

6. Artikulua. Bazterketak.

Deialdi honetatik kanpo honako hauek geratzen dira:

a) Dirulaguntzetarako Lege Orokorren (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra) 13.2 eta 3 artikuluetan aurreikusitako kasuetako jarduerak.

b) Direnagatik edo duten helburuagatik Kultura sailaren jarduerekin inongo loturarik ez duten jarduerak.

c) Edozein motako zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituzten elkarte edo erakundeek aurkeztutako eskabideak, baita Udalarekin edota Gizarte Segurantzarekin eguneratuta ez daudenak ere.

Dirulaguntza eskaerarekin batera, eskatzaileak, zerga-betebeharretan egunean dagoela ziurtatu beharko du.

d) Ez dira aintzat hartuko aurreko deialdietan jasotako dirulaguntza justifikatzeko memoria entregatzeke dituzten jarduera edo programei lotutako eskaerak.

e) Ez dira aintzat hartuko beren jarduera publikoetan indarrean dagoen legeria (jaiotza, arraza, sexu edo erlijio iritziagatik diskriminatzearen debekua) betetzen ez duten elkarte edo erakundeen zein pertsonen eskabideak.

f) Onuradunek, indarrean dagoen lege araudia bete beharko dute, besteak beste, Emakume eta Gizonezkoen berdintasunerako 4/2005 Legea. Hortaz, ez zaie dirulaguntzarik emango kideak aukeratzeko prozesuan edo jardunean sexu-bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei. Udalak atzematen badu elkarte edo erakundeek sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duela, dirulaguntza berdintasun legedia betetzearen arabera baldintzatuta geratuko da. Beraz, elkarte edo erakundeak sexuaren ziozko bereizkeria ezaren konpromiso aktiboa duela ziurtatuko du II. Eranskina sinatuz.

g) Deialdi honetatik kanpo geratuko dira edozein erlijioaren barruan egiten diren ohiko jarduerak edo erlijio gertakariekin zerikusia duten jarduerak.

7. Artikulua. Eskabideak

Dirulaguntza eskatzeko eskari ofizialak erabiliko dira, behar bezala beteak eta sinatuak. Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera.

Eskaerak Hernaniko Udaleko zerbitzu telematikoen bidez egingo dira:

- Erregistroko helbide honetan Elkartearen izenean erregistratuz:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=040&hizkuntza=EU>

Bide horretatik ezin bada:

- **Aurrez aurre, HHZ – Herritarren Harrera Zerbitzuan, udaletxeko beheko solairuan**
Astelehenetik ostiralera: **08:00 – 13:30** (asteartetan eta ostegunetan, 14:30-18:30 ere)

Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdian jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

Eskaera-orriak Udal erregistroan aurkeztu behar dira eta honekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

a) Dirulaguntza eskabide normalizatua, behar bezala beteta eta bertan dauden aitorten guztiak sinatuta.

- Bestelako erakunde, organismo eta abarri dirulaguntzak lortzeko egindako eskaeren aitortpena, edota, halakorik balego, jasotzen dituzten dirulaguntzen aitortpena.

- Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundeen Erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua (2025. urtekoa). Aurreko urteetan dirulaguntza jaso duten elkarteek Eusko Jaurlaritzan izena emanda jarraitzen dutenaren aitortpena.
- Udal Intereserako Elkarteen Erregistroan inskribatuta dagoenaren ziurtagiria.
- Eskatzailearen kontu korrontearen zenbakia eta kontuaren jabe dela erakusten duen aitortpena.

b) Zerga bidezko betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta BEZ araubidea egunean edukitzearen aitortpena (I. Eranskina).

c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen inguruko aitortpena (II. Eranskina).

d) Dirulaguntzaren xede izango den jardueraren deskribapena eta gastu eta sarreraren aurrekontu orekatua (III. Eranskina).

e) Identifikazio Fiskaleko Kodearen dokumentuaren fotokopia (I.F.K).

f) Lehenengo aldiz dirulaguntza eskatzen badu, erakundearen estatutuak eta curriculum: kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak, etab.

Interesaturen batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentatuetako batzuk Hernaniko Udalaren esku daudela eta Udalak hori hala dela baldin badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Edonola ere, aurkeztutako jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko.

8. Artikulua. Akatsen zuzenketa

Eskaera-orriak edo horrekin batera aurkeztu beharreko nahitaezko dokumentazioak akatsen bat balu edo osatu gabe baleude, hamar eguneko epea emango zaie interesatuei, egileak eskakizuna jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, aurkitutako akatsak zuzentzeko. Epe hori igaro ondoren akatsak zuzenduko ez balira, eskaerari uko egin diotela ulertuko da, eta ondorioz, prozedura artxibatuko da.

9. Artikulua. Epeak

Eskaerak aurkezteko epe bakarra izango da. Epea hogeita hamar eguneko izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetatik kontatzen hasita.

Ezarritako epea nahitaez beteko da, eta ez da salbuespenik egingo.

10. Artikulua. Eskabideak ebaluatzen irizpideak

Aurkeztutako eskaeren izapideak egitea Kultura sailari dagokio, eskaerak aztertu eta ebaluazioa egiteaz arduratuko baita honako irizpide hauen arabera:

10.1 Auzoetako jaietarako dirulaguntzak.

Onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten guztiei aurkeztutako aurrekontuaren % berdina emango zaie. Aurrekontu igoerek muga bat izango dute, azken urteko aurrekontuari %7,5eko igoera baimenduko zaio gehienez. Igoera horiek gainerako elkartearen diru banaketan duen eraginagatik. Ehuneko hori dirulaguntza ematea erabakitzen den unean finkatuko da, aurkeztutako eskaera eta programen arabera.

10.2 Jarduera kulturaletarako dirulaguntzak.

Onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten guztiei aurkeztutako aurrekontuaren % berdina emango zaie. Aurrekontu igoerek muga bat izango dute, azken urteko aurrekontuari %7,5eko igoera baimenduko zaio gehienez. Igoera horiek gainerako elkartearen diru banaketan duen eraginagatik. Ehuneko hori dirulaguntza ematea erabakitzen den unean finkatuko da, aurkeztutako eskaera eta programen arabera.

11. Artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Kultura sailak eskaerak aztertu ondoren eta dagokion txosten teknikoaren balorazioa egin eta gero, dirulaguntza ematearen inguruko irizpena Herritarren batzordeak emango du, gero erabakia hartu ahal izateko. Ebazpenean adierazita egon behar du proposatutako eskatzaileen zerrenda eta bakoitzarentzako zenbatekoa; horrez gain, zerrenda hori osatzeko kontuan hartu diren ebaluazio-irizpideak ere azalduko dira, 10. artikuluan aurreikusitako kontzeptuen arabera zehaztuta.

Erabakia hartzeko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da, baina aurrez Herritarren batzordeak bere irizpena emango du.

Ordainketa

Elkartearen funtzionamendu arrunterako dirulaguntzen kasuan, ordainketa dirulaguntza ematea onartzen denean egingo da.

Lokalen alokairuko diru kopurua dirulaguntza ematea onartzen denean ordainduko da, eta lokal horretarako gastuak (elektrizitatea, gasa, ura...) zenbatekoaren %80a dirulaguntza ematea onartzerakoan, eta beste %20a 18. artikulua arabera justifikatzen denean.

Kultur Bira, Auzoetako jaietarako dirulaguntzen eta jarduera kulturaletarako dirulaguntzen kasuetan, onartutako zenbatekoaren %80 dirulaguntza ematea onartzerakoan ordainduko da. Eta beste %20 18. artikulua arabera justifikatzen denean.

12. Artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, dela bera bakarrik, dela beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu batzuk emandako laguntza edo dirulaguntza batzuei batuta, ezingo da izan onuradunak egingo duen jardueraren kostu zuzena baino handiagoa.

13. Artikulua. Jakinarazpena

Eskaera egin duenari jakinaraziko zaio erabakia, eta arrazoiak azalduko dira; ebazpena aldekoa den kasuetan dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da, eta baita ordaintzeko modua ere, justifikazioa eta oinarri hauek eskatzen dituzten gainerako baldintza eta betebeharrak.

14. Artikulua. Ebazpena

Ebazpenak eman eta jakinarazteko epea 3 hilabetekoa izango da gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu guztietan elkarteari ebazpenaren berri emango zaio, dirulaguntza jaso ala ez.

15. Artikulua. Onuradunen betebeharrak

Dirulaguntza emanez gero, entitate onuradunaren obligazioak izango dira, arau orokorretan adierazitakoez gain, honako hauek:

—Dirulaguntza jaso duen jarduera edo proiektua garatzea eta oinarri hauek erabakitako moduan arazoitzea.

—Administrazioak burutu beharreko egiaztatze-jarduerak eta udal kontu-hartzailetzak egin beharreko finantzen kontrolak erraztea.

—Jarduera berak jaso dituen laguntza publiko guztiak jakinaraztea erakunde emaileari. Jasotako laguntzen guztizko zenbatekoa inoiz ezingo da izan jardueraren kostua baino handiagoa.

—Dirulaguntza ematean kontuan hartua izan zen egoera baten aldaketaren berri ematea.

—Erakunde emailearen ardura duen talde teknikoari galdetu eta horren baimena lortu gabe, aurreikusitako gastuak edo dirulaguntza jaso duen proiektua nabarmen aldatzen badira, jasotako kopuruak itzuliko dira.

— Udalak euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko badu Erabilera Plana onartua. Plan horren arabera hauek dira bete beharreko hizkuntza irizpideak:

a.- Diruz lagundutako jarduera adingabeei edo gazteei zuzendua denean (ikastaroak, antzezlanak, ipuin kontaketak, pailazoak...) jarduera euskaraz izango da, ahoz eta idatziz.

b.-Herritar orori zuzendutako idatzizko komunikazioa (egitarauak, kartelak, publizitatea eta jarduera egiteko espazio publikoa erabili behar izanez gero, bertan jarritako idatziak barne) euskaraz izango da. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.*

c.-Herritar orori zuzendutako ahozko komunikazioa (jardueraren aurkezpena, megafonia..) euskaraz izango da. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.

d.- Udalarekiko harremanetan euskara erabiliko da lehentasunez, ahoz eta idatziz.

* Idatzizko testuan honela emango zaio lehentasuna euskarazko mezuari:

- Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, euskaraz idatziz (egitarauetan, adibidez, *txokolatada*).

- Testua osorik euskaraz eta laburpena gaztelaniaz emanez.

- Euskarazkoa nabarmendu, letra handiagoa edo lodia erabiliz.

- Euskarazkoa beltzez eta gaztelaniazkoa grisez idatziz.

- Euskarazko testua goiko aldean edo ezkerrean idatziz.

Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko, edo bestelako laguntzarik emateko.

Ez onartzea, diruz lagundutako jarduera egingo den inguruan, publizitatean edo dirulaguntza jaso duten pertsona edo entitateek ekintza egiterakoan honelakoak ager daitezela: dirulaguntza ematen duen delegazioari dagozkion jarduera esparrutik kanpoko lema, adierazpen, pankarta, ekintza eta abar.

16. Artikulua. Publizitatea

Diruz lagundutako jardueri publizitatea egiten zaienean, jarduera bultzatu duen pertsonak edo erakundeak Hernaniko Udalaren laguntza jaso duela adierazi beharko du, irudi korporatiboaren arauen arabera.

17. Artikulua. Dirulaguntza ematea

Dirulaguntzaren kopurua 9. artikuluan adierazitako kontzeptuen arabera zehaztuko da, kontzeptu horiek behar bezala xehatua, eta eskaera egin duen entitate titularri bidaliko zaio. Entitateak jardueren garapenari buruzko informazioa emateko konpromisoa hartuko du, horien jarraipena egin eta laguntzeko.

18. Artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa

Dirulaguntza dagokion ekitaldiaren barruan justifikatuko da, beranduenez **2026ko urtarrilaren 20ean**.

Hauek dira aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Diruz lagundu den jarduera programaren memoria xehatua. (I. Eranskina)
- b) Gastuen balantze ekonomikoa (araututako ereduaren arabera). (II. Eranskina)
- c) Auzo elkarteak bete beharreko hizkuntza irizpideen betetze maila adierazten duen agiria. (III. Eranskina) eta dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoak.
- d) Fakturen zerrenda (IV. Eranskina) excel formatuan.
- e) Egindako gastuen agiriak (fakturak edota baliokideak); "gastu-oharrak/tiketak" ez dira onartuko. (V. Eranskina). Dieta edo gastu konpentsazio moduan egiten diren ordainketa guztiak transferentzia bidez, gehienez 200 eurokoak, (trasferentzia egin izanaren agiria aurkeztu); eskudirutan salbuespena, eta inoiz ez 100 eurotik gorakoak. Fakturek gutxienez honako datu hauek jaso beharko dituzte:

- Zerbitzua ematen duenaren identifikazioa (izena, helbidea, IFK/NAN).
- Zerbitzua hartzen duenaren identifikazioa (izena, helbidea, IFK/NAN).
- Zerbitzuaren gaiaren identifikazioa.
- Zerbitzua egin zeneko eguna.
- Guztizko kopurua.

Auzoetako jaietarako eta kultur jardueretarako dirulaguntzen kasuan, onuradunek aurkeztutako aurrekontuaren % 80 justifikatu beharko dute gutxienez.

Funtzionamendu gastu orokorrak ezingo dira jai zein kultur jardueren antolaketan barruan sartu.

Frogagiriak Kulturako sailak egiaztatuko ditu eta, hala badagokio, adostasuna eman eta espedienteak udalaren kontu-hartzailetza bulegora bidaliko baitu.

Dirulaguntzak emateko eta justifikatzeko irizpide hauek kontuan hartuko dira:

- Lehiaketetarako eta txapelketetarako sariak: gehienez 300€ eta gehienez bi txapelketa edo sari.
- Errifak eta loteriak ez dira kontuan hartuko, ezta eskelak edo beste elkarteetan bazkidetzak ere.
- Txosnak, Gabonetako saskiak eta elkarteko kideentzat egiten diren ekintza gastronomikoak (bazkariak, hamaiketakoak etab) ez dira kontuan hartuko.
- Auzotarrentzat antolatzen diren ekintza gastronomikoak: hamaiketako bat gehienez 500 euro eta bazkari bat gehienez 1.000 euro. Bat jaietan eta beste bat kultur jardueratan.
- Ekintza kulturalen partaideentzat afari edo bazkariak justifikatzerakoan: 20 euro pertsonako 200 euroko topearekin.
- Ez dira graduazio altuko edariak inolako kontestutan diruz lagunduko.

19. Artikulua. Ebazpen-epea eta berri ematea.

Ebazpenak eman eta jakinarazteko epea 3 hilabetekoa izango da gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu guztietan elkarteari ebazpenaren berri emango zaio, dirulaguntza jaso ala ez.

Emandako dirulaguntzaren berri Udaleko iragarki taulan emango da eta ebazpenaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Orokorrean. Nahikoa izango da Udaleko iragarki taulan jartzea, emandako dirulaguntza bakoitza 3.000 euro baino gutxiagokoa denean.

Eskatutako dirulaguntza ematearen aldeko edo kontrako berariazko ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Ebazpen horren kontra Administrazioarekiko Auzi errekurtsioa jar daiteke, Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko apean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta nahi izanez gero, Administrazioarekiko Auzi errekurtsioa jarri aurretik, Berraztertze Errekurtsioa jar dakiok ebaizpena eman zuen organoari.

20. Artikulua. Ez betetzeak

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematearen aldeko erabakian ezarritako betebeharren bat hautsiz gero, kasua berrikusiko da eta, hala badagokio, dirulaguntza itzuliko da, dirulaguntzak emateko udal araudiaren 18. artikulua aurreikusitako eran.

Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizios hasiko da, dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, eta emandako kopurua ezeztatzea, murriztea edo itzultzea erabaki daiteke horretarako arrazoiak azalduz. Edonola ere, prozeduraren izapideak egitean, interesatuak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da.

38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra eta Udal Dirulaguntza Araudiak xedatu moduan, dirua itzuli behar duten elkarteek itzulketako dirua eta haiei dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dituzte.

21. Artikulua. Araubidea

Deialdi honetan xedatu gabeko guztia Hernaniko Udalaren Dirulaguntzak Emateko Araudiaren arabera arautuko da, eta Dirulaguntzen inguruko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera.